Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak:

De conformidad con lo previsto en el artículo 6. 4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

**10/2020 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 17koa, epe luzerako zorpetzearen gehieneko muga 2020ko ekitaldirako handitzen duena**

**Decreto Foral-Norma 10/2020, de 17 de noviembre, por el que se aumenta para el ejercicio 2020 el límite máximo de endeudamiento a largo plazo**

Donostia, 2022ko urtarrilaren 11an
San Sebastián, a 11 de enero de 2022

| **Digitalki sinatua** / Firmado digitalmente por: | |
|---|---|
| Gipuzkoako Foru Aldundia | **Jokin Perona Lerchundi**<br>**Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua**<br>Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas |

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

# Araugintzako ebaluazio txostena

**10/2020 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 17koa, epe luzerako zorpetzearen gehieneko muga 2020ko ekitaldirako handitzen duena**

## Sarrera

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren foru arauek onartzen dute ekitaldi bakoitzerako epe luzeko zorpetzearen goi muga. Horrela, 2020. urterako, 9/2019 Foru Arauak 443.345.000,00 eurotan finkatu zuen goi muga.

Dena den, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Finantza eta Aurrekontu Araubidearen martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak ezartzen du, zirkunstantzia bereziak direla-eta beharrezkoa denean, Batzar Nagusiek aurretik ezarritako mugatik gora onetsi ahal izango dutela epe luzerako zorpetzea, betiere zenbatekoa eta xedea finkatuz.

# Informe de evaluación normativa

**Decreto Foral-Norma 10/2020, de 17 de noviembre, por el que se aumenta para el ejercicio 2020 el límite máximo de endeudamiento a largo plazo**

## Introducción

Las normas forales anuales de los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa aprueban para cada ejercicio el límite máximo del endeudamiento a largo plazo. Así, para el año 2020, la Norma Foral 9/2019 estableció el límite máximo de 443.345.000,00 euros.

No obstante, la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa establece que cuando por circunstancias especiales sea necesario, las Juntas Generales podrán aprobar, mediante norma foral, un endeudamiento a largo plazo por un importe superior al límite fijado, determinando su cuantía y finalidad.

2020an zehar, covid19ak osasun publikoaren arloan eragin duen larrialdi egoerak eta horri aurre egiteko hartutako neurriek (nahitaezko konfinamendua, mugikortasunaren murrizketak…) jarduera ekonomikoaren beherakada eta moteltzea eragin zuten. Eta horrek, bere aldetik, zerga-bilketaren beherakada ekarri zuen eta ondorioz foru politikak gauzatzeko dauden baliabideak murriztea.

A lo largo de 2020, la situación de emergencia de salud pública ocasionada por la covid-19 y las medidas tomadas para hacer frente a la misma (confinamiento obligatorio, restricciones a la movilidad…) provocaron una caída y ralentización de la actividad económica. Y ello, por su parte, ocasionó un descenso de la recaudación tributaria, y la consiguiente caída de los recursos disponibles para la ejecución de las políticas forales.

Foru Dekretu-Arau hau egiteko unean, aurreikuspenen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baliabide erabilgarriak 127 milioi euro inguru jaitsiko ziren; exekutatu gabeko gastu aurreikuspenak, berriz, 70 milioi euro ingurukoak ziren, Ogasun eta Finantza Departamentuak hartutako euste neurriak barne. Horrek guztiak 52,7 milioi euroko defizit ez-finantzarioa aurreikusten zuen, eta 32,5 milioi euroko defizit finantzarioa.

En el momento de la elaboración del presente Decreto Foral-Norma, las previsiones preveían una caída de los recursos disponibles de la Diputación Foral de Gipuzkoa de cerca de 127 millones de euros; mientras que las previsiones de inejecución de gasto, incluidas las medidas de contención adoptadas por el Departamento de Hacienda y Finanzas, se fijaban en torno a los 70 millones de euros. Todo ello situaba la previsión de déficit no financiero en 52,7 millones de euros y la previsión de déficit financiero de 32,5 millones de euros.

Bestalde, 2020ko irailaren 30ean, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak erabaki zuen konpentsatzea foru aldundiek diru-sarreretan

Por otro lado, la Comisión Mixta del Concierto Económico de 30 de septiembre de 2020 acordó la compensación por la

izango zuten jaitsiera eta foru aldundien aurrekontu egonkortasunaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren -%0,9 eta -%0,8 izango zela, hurrenez hurren, 2020rako eta 2021erako.

reducción de ingresos de las Diputaciones Forales y el objetivo de estabilidad presupuestaria de las Diputaciones forales de un -0,9% y de un -0,8% del PIB de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para 2020 y 2021 respectivamente.

Azkenean, eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak urriaren 15ean 2020ko ekitaldirako onartu zituen itxiera aurreikuspenak kontuan hartuta, beharrezko ikusi zen epe luzeko zorpetzearen gehieneko muga 85.000.000 milioi euro handitzea.

Al final, y teniendo en cuenta las previsiones de cierre del ejercicio 2020 acordadas por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas de 15 de octubre, se observó la necesidad de aumentar el límite máximo de endeudamiento a largo plazo en 85.000.000 millones de euros.

Horrela, onartu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren epe luzerako zorpetze eragiketen saldo bizia, eragiketak dokumentatzeko era zeinahi zela ere, ezin izango zuela 528.345.000,00 eurotik gorakoa izan 2020ko abenduaren 31n.

Así, se aprobó que el saldo vivo de las operaciones de endeudamiento a largo plazo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, cualquiera que fuese la forma en que se documentase, no podría exceder a 31 de diciembre de 2020 de 528.345.000,00 euros.

## Sortutako ondorioak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren baliabide erabilgarrien beherakada, aztertutako foru dekretu-araua onartu zen momentuan aurreikusitakoa baino txikiagoa izan zen, eta horrek, era berean, hasieran aurreikusitakoa baino finantzaketa-behar txikiagoak ekarri zituen.

## Efectos producidos

La caída de los recursos disponibles de la Diputación Foral de Gipuzkoa fue menor de lo que se había previsto en el momento de la aprobación del Decreto Foral-Norma analizado, lo que a su vez supuso unas menores necesidades de financiación sobre lo inicialmente previsto.

Horregatik, 32,5 milioi euroko zorra formalizatzea proposatu zen, finantza-eragiketen saldoa berrorekatzeko. Horrela, zorrera jo zen 2019ko mailari eusteko, eta horrek ekarri zuen zorpetze garbia ez handitzea, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan adostutakoaren arabera.

Por ello, se planteó la formalización de deuda por importe de 32,5 millones de euros para reequilibrar el saldo de operaciones financieras. De esta forma, se acudió a deuda para mantener el nivel de 2019, lo que supuso no aumentar el endeudamiento neto, según lo acordado en la Comisión Mixta del Concierto Económico.

Finantzaketa figurari dagokionez, mailegura jo zen, eragiketa horrek 2020an maileguen amortizazio bidez itzuli genituen baliabideak birjarriko zituelako.

En cuanto a la figura de financiación, se acudió al préstamo puesto que esta operación venía a reponer los recursos que vía amortización de préstamos devolvimos en 2020.

## Lortutako helburuak

## Objetivos alcanzados

Ez da gorabeherarik izan, eta aurreikusitako helburu guztiak lortu dira, hau da: “finantzaketa lortu da ezarritako mugen barruan”.

No ha habido incidencias y se han alcanzado todos los objetivos previstos: “obtener financiación dentro de los límites establecidos”.

## Proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura

## Correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados

Azkenean, eta arestian aipatutako inguruabarrak direla eta, zorpetzearen gehieneko muga igotako 85 milioi eurotik 32,5 milioi erabili ziren.

Al final, y debido a las circunstancias comentadas con anterioridad, de los 85 millones de euros de aumento del límite máximo de endeudamiento se utilizaron 32,5 millones.

Horrela, bada, Foru Aldundiaren epe luzeko zorpetze eragiketen saldo bizia 475.845.000,00 eurotan ezarri zen 2020ko abenduaren 31n, eta horrek esan nahi du ez zela handitu zorpetze garbia 2019. urtearekin alderatuta.

Así, el saldo vivo de las operaciones de endeudamiento a largo plazo de la Diputación Foral quedó establecido a 31 de diciembre de 2020 en la cantidad de 475.845.000,00 euros, lo que significó no aumentar el endeudamiento neto respecto a 2019.

## Araugintza garatzeko beharrak

## Necesidades de desarrollo normativo

Aipatutako mailegua abenduaren 10eko 482/2020 Foru Aginduaren bidez formalizatu zen.

La formalización del mencionado préstamo se realizó mediante la orden foral 482/2020 de 10 de diciembre.

## Arauaren aplikazioagatik judizializatutako kasuak

## Casos de judicialización por aplicación de la norma

Orain arte, ez da judizializazio kasurik izan aplikazioan.

Hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.

## Laburbilduz

## En resumen

Aztertutako foru dekretu-araua eraginkortasunez bete da, inongo arazorik gabe, traba berezirik gabe bete, eta haren aplikazioan ez da gertatu inolako judizializazio kasurik.

El decreto foral-norma analizado se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, sin ningún tipo de problemas en su aplicación, sin ningún contratiempo en especial, y hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.